- **Larrialdi partziala:** menderatu ahal izateko beste sektore, solairu edo eraikin batzuetako larrialdietako taldeen jarduketa eskatzen duen gertaera. Ez da aurreikusten sektore mugakideei eragingo dienik.
- **Larrialdi orokorra:** kontrolatu ahal izateko babes-ekipamendu eta -baliabide propio guztiak eta kanpoko sorospen- eta salbamendu-baliabideen laguntza eskatzen duen egoera. Gehienetan ebakuazio totalak edo partzialak eragingo ditu.

Larrialdietarako Jarduketa Planak une oro bermatu behar du pertsonen eta baliabide materialen esku-hartzea honako ekintza hauek gauzatzeko:

- **Alerta:** Kontrolatu gabeko larrialdi-egoera baten aurrean dauden pertsonen telefono bidez, sakagailu bidez edo ahots bidez erabili ahal izango dituzten komunikazio-sistemak ezartzea du xede. Ahalik eta lasterren jarriko dira martxan barneko esku-hartze taldeak arduradunak jakinaren gainean jartzeko. Eta horiek, behar izanez gero, kanpoko laguntzei.
- **Alarma:** Komunikazio Zentrotik (normalean telefonogunea) megafonia bidez edo alarma bereziak aktibatuz emango dira jarraibideak.
- **Esku-hartzea:** Barneko taldeen esku-hartzea ezartzen da: Esku-hartze Taldeak (ET) larrialdi-egoera kontrolatu ahal izateko. Jarduketa-jarraibideek arriskua aztertze eta atalean identifikatutako kasu desberdinetan hartu behar diren ekintzak definitzeko balioko dute. Jarraibideak periodikoki berrikusi behar dira instalazioetan, okupazio-mailetan eta abarretan izan daitezkeen aldaketan araberak.
- **Ebakuazioa/Konfinamendua:** Larrialdi-baldintzak gainerako pertsonen osasuna arriskuan jarri gabe kontrolatu ezin direnean, abian jarri behar da zentroan dauden pertsona guztien desplazamendua Elkargune edo Babesgune izeneko leku seguru batera iritsi arte.
- **Kanpoko laguntzaren eskaera:** Kanpoko babesa eta laguntza eskatzen dira, ezbeharraren izaera eta gertaeren eboluzioa kontuan hartuta, baliabide eta ekipamendu propioekin ezin zaiolako aurre egin larrialdi-egoerari. Kanpoko laguntza-zerbitzuentzako harrera eta informazioa ezartzen da.


## 6.2 Larrialdietarako jarduketa-prozedurak

FASEAK	DESKRIBAPENA
DETEKTATZEA ETA ALERTA	<p><i>Langile batek, erabiltzaile batek edo sistema automatiko batek ezbehar bat, hutsegite bat edo arrisku bat detektatzen duenean eta <b>Suteen Zentraleko burrunbagailuak</b> eta <b>alarma orokorraren sirenak</b> jotzen dutenean aktibatzen da. Aktibatu ondoren, ez da isildu behar «in situ» egiaztapena egin arte.</i></p> <p><i>- Seinale horiekin, <b>KZak</b> egiaztapen-fasea hasiko du, eta egoeraren berri emango dio <b>JPZri</b> edo <b>LBri</b>. Hark, egoerari buruzko informazioa aztertu ondoren, larrialdiari erantzuteko mekanismoak abian jartzea erabakiko du, hala badagokio.</i></p>
ALARMA- MEKANISMOAK	<p><i><b>JPZk</b> edo <b>LBk</b> abian jartzea erabakitzen duenean, <b>Larrialdietako Taldeko langileei</b> honela egiten zaizkie komunikazioak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Telefonoz / Zuzenean.</i></li> </ul> <p><i>Alarma partzialaren edo orokorraren jakinarazpenak honela egiten zaizkie <b>gainerako pertsoneri</b>:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Megafonia bidez / Zuzenean.</i></li> </ul> <p><i>- Fluxu-diagrametan larrialdien aurrean erantzuteko mekanismoak ezartzen dira.</i></p>
EBAKUAZIOA EDO KONFINAMENDUA	<p><b><u>KANPORAKO EBAKUAZIO BERTIKALA</u></b></p> <p><i>Pertsonak eraikin edo eremu batetik kanpo leku seguru batera eramatea dakar. Kanporako ebakuazioa pertsonen bizitza babesteko egiten da, mehatxu zuzen batetik urrunduz. Prebentzio-neurri bat da, lesioen edo heriotzaren arriskua minimizatzea helburu duena.</i></p> <p><i>Pertsonak beren bizitza arriskuan jar dezakeen berehalako mehatxu batetik urruntzeko egiten da prozedura hori. Esate baterako suteetan,</i></p>

FASEAK	DESKRIBAPENA
	<p>leherketetan, bonba-mehatxuetan edo natura-hondamendietan gomendatzen da, eraikina segurua ez denean.</p> <p><b><u>EBAKUAZIO HORIZONTALA EDO KONFINAMENDUA</u></b></p> <p>Pertsonak eraikin edo eremu seguru baten barruan mantentzea dakar, atea eta leihoak itxita eta kanpora joatea saihestuz. Prozedura hau kanpoko mehatxuekin erabiltzen da, ebakuazio bertikala ez denean segurua ebakuazio-bideak ezin direlako erabili edo ebakuazio bertikala ez denean bideragarria erabiltzaileen ezaugarriengatik.</p> <p>Ez zaio inoiz ebakuazio horizontalari lehentasuna eman behar eraikinak ez badu babesgune gisa funtziona dezakeen sute-sektorerik!</p> <p><b><u>EBAKUAZIOAREN PLANGINTZA</u></b></p> <p>Ebakuazioaren plangintza eraikin bakoitzaren ezaugarrietan finkatu behar da (ebakuazio-bideen eta larrialdi-irteeren zabalera eta kokapena, ohiko okupatzaileen ezaugarriak, arrisku bereziko eremuak, etab.), eta eraikinaren puntu kritikoak eta erabili beharreko irteerak zehaztuko dira. Ebakuazio-bide bakoitzaren izendapena hurbiltasun-irizpideekin eta ebakatu beharreko pertsona-kopurua kontuan hartuta egingo da.</p> <p>Ebakuazio-premia berretsi ondoren, ebakuazio-funtzioak dituzten Jarduketa Taldeko langileak larrialdiaren jatorri-fokutik hurbilen dauden gelak husten hasiko dira lehenik. Gainerako solairuak edo barrutiak ordenan hustuko dira, ebakuazio-bideetatik hurbilen dauden geletatik hasita. Irizpide berari jarraituz, kanpora irteera horizontala duten solairuak edo barrutiak ebakutuko dira lehenik.</p> <p>Aldi berean, goiko solairuetako okupatzaileak eskailera hurbilenetara mugituko dira modu ordenatuan, aurretik dituztenen eta beheko solairuetakoen lehentasuna errespetatuz.</p> <p>Solairu/eremu bakoitza ebakutzeaz arduratzen diren pertsonak egiaztatu beharko dute beren kargura duten espazioa hutsik geratzen dela, beren segurtasuna eta osasuna arriskuan jarri gabe, eta kanpoan informazio horren berri eman beharko diote JPZri edo LBri. Esleitutako guneetakoren bat ezin izan bada egiaztatu, eta edozein zalantza izanez gero, informazio hori JPZri edo LBri jakinaraziko diote.</p> <p>- Ebakuazio-bidean kea badago, bide hori ez da erabiliko, ordezko bide bat bilatuko da, eta, beste aukerarik ez badago, eraikinetik edo solairutik urrunago dauden eremuetan konfinatuko dira, ahal bada beste sute-sektore batean. Eta erabiltzaileen ezaugarriak direla-eta ebakuazio bertikala egitea bideragarria ez denean ere bai. Bi kasuetan, solairuko/eremuko ebakuazioaren arduradunek egoeraren berri emango diote JPZri edo LBri, eta aginduen zain geratuko da.</p>
<b>LEHEN LAGUNTZAK EMATEA</b>	<p>Egoera detektatzen duen pertsona gaituta badago, eta, bestela, <b>JPZ edo LB eta JTko langileak</b> larrialdi-egoera kontrolatzen saiatuko dira larrialdiaren uean erabilgarri dauden baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliz.</p>
<b>KANPOKO LAGUNTZEN HARRERA</b>	<p><b>JPZ edo LB</b> izango da eskatutako kanpoko laguntza-zerbitzuen harreraren arduraduna. Zuzenean egin ahal izango du, edo Larrialdietako Taldeko norbaiti egiteko agindua emango du.</p> <p>- Harrera egindakoa, larrialdiaren lekura bideratuko ditu, eta egoeraren berri emango die.</p>
<b>ELKARGUNEA</b>	<p>Ebakutatutako pertsona guztiak eramateko erreferentziatzko lekua da. Erraz iristeko moduko lekua izan behar du, arriskutik urrun dagoena, nahikoa leku duena eta ondo seinaleztatua.</p>

Hurrengo fluxu-diagraman modu grafikoagoan deskribatzen dira atal horiek eta jarduketa-prozedura orokorra:

# LARRIALDIA DETEKTATZEA



(a) Sakatu LARRIALDIKO SAKAGAILUA.

(b) Egoera erraz kontrolatzeko bada, arriskua handiegia ez bada eta prestakuntza eta ekipamendu egokia badituzu: baloratu kontrolatzeko aukera (azkar jarduteak ondorioak minimizatuko ditu).

(c) Lokalaren ebakuazioa. Egoeraren arriskuaren arabera:  
 • Geratu lokaletik gertu (abisua eman ondoren):  
 - Eragotzi beste pertsoneri lokalera sartzea. Ez utzi sartzen ibilgailuei edo oinezkoei. Beharrezkoa bada, eskatu laguntza.  
 - Laguntzei itxaron informazioa emateko.  
 Garrantzitsuena zure segurtasuna da. Erabili zentzu komuna; ez hartu arriskurik alferrik; ez jokatu zuhurtziagabekeriak.

(d) Abisu pertsonala. Abisuak larritasuna adierazten badu, deitu 112ra.

(e) Abisua mugikor bidez egingo da.

1.- Egoera OSO erraz kontrolatzeko modukoa bada, arriskua handiegia ez bada eta prestakuntza eta ekipamendu egokiak izanez gero (arrisku gutxieneko egoera):  
**LEHENIK ETA BEHIN, KONTROLATZEN SAIATU.**

2.- Deitu 112ra, ebakuatu eta ondoren **Mantentze Arduraduna eta Larrialdietako Jarduketa Planaren Zuzendaritza** larrialdi-egoera kontrolatzen saiatuko dira, jarduketa-jarraibideei jarraituz.

JPZk edo LBk, eta hura falta denean haren ordezkioak, egoera baloratu du

## 1. ERRAZ KONTROLATZE KO MODUKO EGOERA

## 2.- EGOERA EZ-SEGURUA EDO LARRIA, EDO ZALANTZARIK IZANEZ GERO A2-ALARMA OROKORRA

JPZk edo LBk ebakuazio-agindua komunikatuko du

**EBAKUAZIO-ALARMA**

JTk eraikina ebakuatuko du

**ELKARGUNEAN** kontrola egingo da, eta han egongo da agindu berriak egon arte.

JPZk edo LBk **112ra** deituko du


JPZk edo LBk larrialdietako kanpoko zerbitzuei harrera egingo die, eta informazioa emango die. Haiiek agintea hartuko dute. Ahal den neurrian lagunduko zaie.

JPZ edo LB eta JT larrialdia kontrolatzen saiatuko dira



**Egoeraren kontrola**

**Alarma amaitzea eta normaltasunera itzultzea. Berrabiaraztea eta gorabehera erregistratzea.**



### 6.3 Larrialdietan jarduketa-prozedurak burutuko dituzten pertsona eta taldeen identifikazioa eta funtzioak

Larrialdietako taldeak osatzen du arriskua aztertzeko atalean identifikatutako kasuetan behar diren jarduketak antolatu beharko dituzten pertsona izendatu eta prestatuen multzoa.


Izendatutako pertsona guztiek prebentzio-jarrera izan behar dute, eta beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte nahi ez den gertakaririk gerta ez dadin.

Alde horretatik, pertsona horiek:

- Informatuta egon behar dute zentzoko jarduerak berak edo bere inguruneak identifikatutako arriskuez.
- Modu aktiboan parte hartu behar dute anomalien identifikazioan eta zuzendu direla egiaztatu behar dute.
- Larrialdiei aurre egiteko babes- eta jarduketa-baliabideak ezagutu behar dituzte eta erabilera- eta mantentze-egoera onean eduki.
- Taldeko gainerako kideekin edo beste enpresa mugakide batzuen taldeekin koordinatzeko gaitasuna izan behar dute.

**1. Eranskinen** dago pertsona izendatuen zerrenda.

Ondoren, Larrialdietako Taldeak osatzen duen **ANTOLAMENDU-EGITURA** ezarriko da esleituta dituen izendapenarekin eta funtzioekin.



## **Larrialdietako Jarduketa Planaren Zuzendaritza (JPZ) – Larrialdietako Buruzagitza (LB):**

### **Deskribapena:**

Larrialdi-egoeraren lekuan jarduketa koordinatzeaz arduratzen den pertsona da. Gutxienez honako hauek ezagutu behar ditu:

- Higiezinaren arrisku orokorrak, lehendik dauden ekipo edo instalazioengatik edo gauzatzen ari diren lan-prozesuengatik, bai eta ingurunean eragin diezaioketen kanpoko arriskuak ere.
- Bere jarduketa-eremuan erabilgarri dauden babes-baliabideen hornidura arrisku-foku batean esku hartzeko, lehen sorospenak aplikatzeko eta ebakuazio-bide nagusiak eta alternatiboak ezagutzeko, bai eta okupatzaileen konfinamendu-eremuak ezagutzeko ere.
- Plan honetan identifikatutako eta definitutako arrisku potentzialeko egoera bakoitzerako jarduketa-jarraibideak.

### **Funtzioak:**

- Abisu edo alarma bat jaso ondoren, egoera aztertu eta ebaluatu behar du, larrialdia egiaztatu eta larrialdietako taldeei aginduak eman, eta, beharrezkotzat jotzen badu, jarduketa-plana aktibatu beharko du.
- Jarduketa-plana aktibatu ondoren, erabakiak hartu behar ditu fokuan modu seguruan esku hartzearen bideragarritasunari buruz, ebakuazio-premiari buruz, lehen sorospenak aplikatzeko premiari buruz eta instalazioak eta hornidurak kudeatzeko premiari buruz, eta Larrialdietako Taldeko langileek larrialdi-egoeran zehar egiten dituzten jarduketa guztiak koordinatu behar ditu.
- Larrialdi orokorra deklaratzean, Komunikazio Zentroko langileei kanpoko laguntza-zerbitzuei abisatzeko eskatu behar die, eta haiek solaskide gisa jardun behar dute, eskura duten informazio guztia transmitituz, beren zereginak errazago egin ditzaten.
- Ebakuazioa amaitutakoan, elkargunera joango da, eta bertan Jarduketa Taldeko langileekin koordinatuko da ebakuazioaren egoera zein den jakiteko eta zentroa ebakuatutzat eman ahal izateko. Espazioen bat egiaztatu ezin izan bada, kanpoko laguntza-zerbitzuei jakinaraziko die baita ere.
- Kanpoan kanpoko laguntza-zerbitzuei harrera egin behar die, eta ebakuazioaren egoerari, instalazioen ezaugarriei, arriskuei eta abarri buruzko informazioa eman behar die.
- Larrialdi-egoeraren amaiera adierazteko ardura berak izango du. Erabaki hori hartuko du kanpoko jarduketa-zerbitzuen buruzagitzarekin ados jarrita, baldin eta parte hartu badute.

## **Komunikazio Zentroa (KZ):**

### **Deskribapena:**

JPZren edo LBren agindupean eta komunikazio etengabea, edozein pertsona arrisku-egoera potentzial batean egotearen lehen abisua kudeatu behar du, edo sute-telefonoguneak sortutako seinalearen egiaztapena kudeatu behar du alarma automatikoaren kasuan.

Gainera, larrialdia izanez gero, JPZri edo LBri lagunduko dio barneko eta kanpoko abisu eta deietarako.

Gutxienez honako hauek ezagutu behar ditu:

- Higiezinaren arrisku orokorrak –batez ere bere jarduketa-eremukoak–, lehendik dauden ekipo edo instalazioengatik edo gauzatzen ari diren lan-prozesuengatik, bai eta ingurunean eragin diezaioketen kanpoko arriskuak ere.
- Bere jarduketa-eremuan erabilgarri dauden babes-baliabideen hornidura alarmak egiaztatzeko, eta horien kokapena eta erabiltzeko jarraibideak. Suteen Zentralean identifikatutako eremu edo gela bakoitzaren identifikazioa ezagutu behar du. Beharrezkoa denean alarma-sirena bat eskuz nola isilarazi eta aktibatu jakin behar du.
- Plan honetan identifikatutako eta definitutako arrisku potentzialeko egoera bakoitzerako jarduketa-jarraibideak.

#### **Funtzioak:**

- Balizko larrialdi-egoera aurkitu duen pertsonaren aldetik jasotako abisuak edo Suteen Zentralean automatikoki sortutakoak kudeatzea, larrialdiaren jatorria identifikatzeko eta egiaztapena zuzentzeko.
- Jarduketa Planaren Zuzendaritzari edo Larrialdietako Buruzagitzari egoeraren berri ematea.
- JPZren eta/edo LBren aginduak betetzea abisuei dagokienez:
  - Jarduketa Taldeari abisatzea, hala dagokionean.
  - Zentraletik alarma-sirena aktibatzea/desaktibatzea, premiaren arabera.
  - 112ra deitzea. Kanpoko laguntzarekiko komunikazioak egitea.
  - Megafoniaren bidez informazioa transmititzea.
- Ebakuazioaren kasuan, sarrera nagusia kontrolatzea eta inori eraikineraren sartzan ez uztea (ibilgailuak eta pertsonak), eta beheko solairuan igogailuak blokeatzea edo automatikoki programatuta dagoenean egiaztatzea.

#### **Jarduketa Taldea (JT):**

##### **Deskribapena:**

JPZren edo LBren agindupean eta komunikazio etengabea, ahal den neurrian jardun behar du kanpoko laguntza-zerbitzuak iritsi arte funtzio hauetan: Egiaztapena, alarma eta esku-hartzea, Lehen sorospinak, Ebakuazioa eta Instalazioen eta horniduren kudeaketa.

Gutxienez honako hauek ezagutu behar ditu:

- Higiezinaren arrisku orokorrak –batez ere bere jarduketa-eremukoak–, lehendik dauden ekipo edo instalazioengatik edo gauzatzen ari diren lan-prozesuengatik, bai eta ingurunean eragin diezaioketen kanpoko arriskuak ere.
- Bere jarduketa-eremuan erabilgarri dauden babes-baliabideen hornidura arrisku-foku batean esku hartzeko, lehen sorospinak aplikatzeko eta ebakuazio-bide nagusiak eta alternatiboak ezagutzeko, bai eta okupatzaileen konfinamendu-eremuak ezagutzeko ere.
- Plan honetan identifikatutako eta definitutako arrisku potentzialeko egoera bakoitzerako jarduketa-jarraibideak.

#### **Funtzioak:**

- **Egiaztapena, alarma eta esku-hartzea** funtziorako izendatutako langileak:

- KZrekin komunikazioan, larrialdia gertatu den lekura joatea larrialdia egiaztatzeko, egoeraren berri emateko eta bideragarria denean eskura dituen SBI bitartekoekin esku-hartze posible bat egitea, egoera kontrolatzen saiatzeko.
- Arriskuak aurkitu bezain laster aurre egitea eskura dauden bitartekoekin.
- Arriskua hedatzea eragozte, atek eta leihoak igaro ahala itxiz, eta, bereziki, sute-sektore bereziak osatzen dituztenak.
- **Lehen sorospentarako** izendatutako langileak:
  - Zaurituta egon daitezkeen pertsonen lehen sorospentari eta sorospentari buruzko ezagutzak aplikatzea.
- **Ebakuaziorako** izendatutako langileak:
  - Okupatzaile guztiei alarma transmititzen zaiela bermatzea, ebakuazio osoa ziurtatzea, esleitutako espazio bakoitza pertsonalki egiaztatuz eta detektatutako absentsia posibleen abisua ematea ebakuazioaren ondoren.
  - Pertsona guztiak kanpora zuzentzea, modu ordenatuan kasu bakoitzean hurbilen dagoen ebakuazio-bidearen bidez, eta alternatibak proposatzea, ebakuazio-bideak erabili ezin direnean. Kanporako ebakuazio-alternatibarik ez dagoenean, edo erabiltzaileen ezaugarriak direla-eta bideragarria ez den jardueretan, pertsonak arriskuaren kokapenetik urrun dauden konfinamendu-eremuetara eraman behar dituzte, ahal izanez gero sute-sektore berezi batera. Oso garrantzitsua da JPZri edo LBri konfinatuen kokapen zehatza jakinaraztea, informazio hori kanpoko laguntza-zerbitzuei helarazteko.
  - Arriskua hedatzea eragozte, atek eta leihoak igaro ahala itxiz, eta, bereziki, sute-sektore bereziak osatzen dituztenak.
- **Instalazioen eta horniduren kudeaketarako** izendatutako langileak:
  - Instalazioetan jardutea eta eragindako hornidurak edo kasu bakoitzean egon daitezkeen arriskuak moztea.

### **Gainerako langileak:**

#### **Deskribapena:**

Eraikina eta dauden babes-baliabideak ezagutu ahal izango dituzte edo ez, eta, beraz, ez dute funtzio espezifikorik. Normalean ez dute ezagutzen dauden bitartekoen erabilera, baina dauden arriskuen jakitun izan behar dute, eta ebakuazioaren kasuan ordenarekin eta patxadarekin jokatzeko jakin behar dute.

#### **Funtzioak:**

- Larrialdietako Taldeko langileen aginduak beti errespetatzea.
- Ebakuazio-seinaleek identifikatutako ebakuazio-bide hurbilenaren bidez modu ordenatuan ebakuatzea.
- Ezbehar larriren bat eragin dezakeen anomaliaren bat detektatuz gero alarma transmititzea.
- Ingurunea ahalik eta gehien babesten dela bermatzeko beharrezkoak diren eragiketak egitea, lanpostua utzi aurretik.

## **6.4 Larrialdietarako jarduketa-plana martxan jartzeko arduradunaren identifikazioa**

Jarduketa Plana martxan jartzeko arduraduna **Jarduketa Planaren Zuzendaritza** izango da, eta, halakorik ezean, **Larrialdietako Buruzagitza**. Halakorik ez badago, larrialdietarako kanpoko zerbitzuek beteko dituzte haien funtzioak.

## **7. KAPITULUA: AUTOBABES PLANA GORAGOKO MAILAKO BESTE PLAN BATZUETAN TXERTATZEA**

## 7.1 Larrialdia jakinarazteko protokoloak

Larrialdietako Kanpoko Zerbitzuekiko komunikazioa **Jarduketa Planaren Zuzendaritzak** edo **Larrialdietako Buruzagitzak** egingo du, edo haren agindupean dagoen norbaitek, telefonoz.

Behean aurkezten den inprimakia erabili ahal izango da informazio garrantzitsuena emateko gida gisa.

KANPOKO ZERBITZUENTZAKO ABISU-MEZUA			
SOS DEIAK – 112			
<b>HEMENDIK DEITZEN ARI NAIZ</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <b>KALEAN KOKATUA:</b></li> <li>➤ LANTOKIKO TELEFONOA: <i>hobe da mugikor bat uztea, Zentroa uzten bada ere.</i></li> <li>➤ HAU DA NIRE IZENA:</li> </ul>			
<b>HAU GERTATU DA</b>		<input type="checkbox"/> Sute bat <input type="checkbox"/> Leherketa bat <input type="checkbox"/> Istripu edo gaixotasun bat <input type="checkbox"/> Bonba-mehatxu bat <input type="checkbox"/> Beste batzuk:	
<b>NON</b>		<input type="checkbox"/> Eraikina (solairua) <input type="checkbox"/> Eraikin erantsia <input type="checkbox"/> Kanpoaldea	
<b>HONI ERAGITEN DIO</b>		<input type="checkbox"/> Garajea <input type="checkbox"/> Instalazio elektrikoa <input type="checkbox"/> Berokuntza-instalazioa <input type="checkbox"/> Paper-biltegia, artxibategiak, makinak... <input type="checkbox"/> Beste batzuk:	
<b>ZAURITUTAKO PERTSONAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<input type="checkbox"/> Harrapatuak <input type="checkbox"/> Erreak <input type="checkbox"/> Traumatizatuak <input type="checkbox"/> Intoxikatuak <input type="checkbox"/> Hildakoak
<b>ZENBAT</b>			
<b>NOIZ HASI DA</b>		<input type="checkbox"/> .... : .... e(t)an	
<b>ONDORIO HAUEK AURREIKUSTEN DIRA</b>		<input type="checkbox"/> Sutea inguruko instalazioetan <input type="checkbox"/> Kea instalazioetan <input type="checkbox"/> Pertsonak harrapatuta	
<b>HAUEI ERAGIN DIEZAIKE</b>		<input type="checkbox"/> Inguruko instalazioei, eraikin mugakideei <input type="checkbox"/> Aparkatutako ibilgailuei	
<b>INSTALAZIOETAN HAUEK DAUDE</b>		Pertsona-kopurua <input type="checkbox"/> Kanpoko pertsonak <input type="checkbox"/> Bilerak... <input type="checkbox"/> Ebakuatuta dago	
<b>INGURUMEN-BALDINTZAK</b>		<input type="checkbox"/> Haizea, euri-jasa, elurra	

## **7.2 Autobabes Planaren arduradunaren eta Autobabes Plana bere baitan hartzen duen babes zibileko planaren zuzendaritzaren arteko koordinazioa**

Jarduketa Planaren Zuzendaritza edo Larrialdietako Buruzagitza arduratuko da larrialdia kudeatzeaz, ezarritakoaren arabera, eta larrialdietarako zerbitzu bakarrarekin komunikatuko da, honako hauen bidez:

### **112 (SOS DEIAK)**

Larrialdi Zerbitzuak iritsitakoan, Jarduketa Planaren Zuzendaritzak edo Larrialdietako Buruzagitza Aginte Postu Aurreratuarekin lankidetzan jardungo du eta integratu egingo da, eta beharrezkoak diren informazioa eta baliabideak emango ditu.

## **7.3 Autobabeserako antolakundeak babes zibileko sistema publikoaren plan eta jarduketekin lankidetzan aritzeko moduak**

Enpresak/jarduerak Autobabes Planaren arduradunaren bidez aldiro-aldiro egin beharko ditu larrialdietarako kanpoko zerbitzuekin komunikazio eta kolaborazio egokia izatea xede duten jarduketak.

Horretarako, Autobabes Plana ezartzeko jarduketan emaitzei buruzko, Planaren berrikuspenei buruzko, prestakuntza-ekintzei buruzko, simulakroei buruzko eta abarri buruzko jakinarazpenak egingo zaizkie larrialdietarako tokiko erakundeei, esaterako, suhiltzaileei eta Babes Zibilekoei eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako Larrialdi Saileko Autobabes Erregistroaren sistemaren bidez.

## 8. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANAREN EZARPENA

## 8.1 Plana ezartzeko arduradunaren identifikazioa

Autobabes Plana egiteko ardura jardueraren titularrari dagokio. Pertsona juridikoa bada, ardura hori xede horretarako izendatutako pertsona fisiko batek hartzen du.

Hala ere, Autobabes Planaren arduradunari dagokio Plan hau gainbegiratu, onartu eta ezartzeko ardura.

Indarreko legeriaren arabera, zentroko langile guztiak behartuta daude Autobabes Planean parte hartzera.

Hauek dira Plana martxan jartzeko ezinbesteko jarduerak:

- Autobabes Plana egitea, instalaziora egindako ikuskapen-bisitan zentroko langileek emandako datuen arabera.
- Plana eraikineko errealitatera egokitzen dela egiaztatzea eta jardueraren titularrak bere jarduketa-prozedurak onartzea.
- Larrialdietako Taldea osatuko duten pertsonak izendatzea.
- Autobabes Planaren informazioa Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako Autobabes Planen Erregistroan sartzea.
- Prestaketa-ikastaroak eta hasierako trebatze- eta ondorengo birziklatze-ikastaroak ematea urtean behin, gutxienez.
- Aldiro-aldiri larrialdietako ariketa praktikoak antolatzea eta egitea, planaren eraginkortasuna eta larrialdiko antolakuntzako kideen trebakuntza egiaztatzeko xedez.

## 8.2. Autobabes Planean parte-hartze aktiboa duten langileak prestatu eta gaitzeko programa

### **Prestakuntza**

Autobabes Plana ezarri ahal izateko ezinbestekoak dira, gutxienez: langileak prestatzea eta gaitzea, jendea informatzeko mekanismoak ezartzea eta plana aplikatzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak jartzea.

Prestakuntza hainbat mailatan egin da:

Larrialdi-egoeren kudeaketan funtzioak dituzten langile guztiek Autobabes Plana ezartzeko prestakuntza, jarduketa-prozedura orokorra eta ebakuazio-jarraibideak jaso beharko dituzte.

Gainera, funtzio espezifikoak esleituta dituen pertsona bakoitzak funtzio horietarako prestakuntza teoriko-praktiko espezifikoa jaso beharko du:

- Suteen aurka babesteko ekipamenduen bidezko esku-hartzea; suteen aurkako eraso eta borroka, su-itxalgailuak, suteetako ur-hargune hornituak eta abar, eragindako eta kontrolatutako suak itzaltzeko ariketekin, eraikinean dauden eskuzko su-itxalgailuak eta agente itzaltzaileak eta beraien eginkizunetarako egokiak diren mahukak eta norbera babesteko ekipamenduak erabiliz.

- Lehen sorospenak eta KDEA, kanpoko desfibriladore erdi-automatikoa erabiltzea.

### 8.3 Langile guztiak Autobabes Planari buruz prestatzeko eta informatzeko programa

#### Informazioa

Zentroko langile guztiek suteen kontra babesteari eta ebakuazioari buruzko informazioa eta oinarrizko jarraibideak jaso behar dituzte.

Lantokia osatzen duten instalazioetako jardueretan esku hartzen duten pertsona guztiak egon daitezke larrialdi-egoera batean nahasita eta, horregatik, aurrez informatu behar dira jarduera-prozedurari buruz.

Horregatik, informazioa taula honetan azaltzen den bezala zabaltzea gomendatzen da, enpresak hautatutako aldiarekin:

ALCANCE	PERIODICIDAD	PERSONAL
LARRIALDIETARAKO JARDUKETA-PROZEDURA	URTEKOA	Larrialdietako Taldea
SUTEEN KONTRAKO PREBENTZIOA ETA BABESA	HIRU-URTEKOA	Larrialdietako Taldea
KONTZIENTZIATZEKO HITZALDIAK	URTEKOA	Langile guztiak
INFORMAZIO-BILERAK	URTEKOA	Langile guztiak
SUTEEN KONTRAKO PREBENTZIOAREN OINARRIZKO ARAUAK	URTEKOA	Langile guztiak

### 8.4 Erabiltzaileentzako informazio orokorreko programa

#### **Informazioaren tipologia:**

- Segurtasun-seinaleak: esku hartzeko bitartekoen eta suteen aurkako alarmaren egoeraren adierazleak, baita larrialdi-irteerak eta ebakuaziorako bitartekoak adieraztekoak ere.
- Sute-larrialdia izanez gero, arriskuen prebentzio-jarduketei buruzko eta izan beharreko jokabideari buruzko kontsignak jasotzen dituzten kartelak eta fitxak.
- Autobabes-bitartekoen kokapenaren planoak.
- «Hemen zaude» adierazten duten kokapen-planoak.

## 8.5 Bisitarien jokabiderako seinaleak eta arauak

Seinaleen xedea ebakuazio-bideei buruz eta instalazioetan dauden suteen kontra babesteko ekipamenduei buruz informatzea da.

Bisitarien edo unean uneko lanak egiten ari diren langileen jokabideak 4. Eranskina: Dibulgazio-kartelak eta dagokion jarduketa-fitxa deiturikoan jasota daude.

Ebakuazio-seinaleak eta suteen aurkako babes-ekipoen seinaleak:



## 8.6. Bitarteko materialak eta baliabideak hornitu eta egokitzeko programa

Instalazioak behar bezala mantendu behar dira, eta arauzko azterketak eta ikuskapenak egin behar dira, instalazio bakoitzari aplikatu beharreko industriako erregelamendu bakoitzari dagokion ITCan zehaztutako aldizkakotasunarekin.

## 9. KAPITULUA: AUTOBABES PLANAREN ERAGINKORTASUNA ETA EGUNERATZEA MANTENTZEA

## 9.1 Prestakuntza eta informazioa birziklatzeko programa

Larrialdietako talde propioetan (barnekoak nahiz kanpokoak) esku hartzen duten langileei eta establezimenduan lan egiten duten langileei informazioa/prestakuntza emateko prestakuntza-programazio bat ezarriko da, eta jarduketak egingo dira une bakoitzean hartutako neurriak eta Autobabes Planaren eguneratze posibleak ezagut ditzaten.

Lantaldeak berritzeak edo langile berriak sartzeak gainerako kideei emandako hasierako prestakuntza berriro ematea ekarriko du. Eta prestakuntza espezifikoak, lantaldearen barruan duten karguaren arabera.

Instalazioen aldaketarekin, lan-prozedurekin, teknologia berriak sartzearekin eta abarrekin, horri buruzko informazio berria eman beharko da, eta aldaketak esanguratsuak direnean, lantaldeko kideak birziklatu beharko dira.

## 9.2 Bitartekoak eta baliabideak ordeztzeko programa

Suteen kontra babesteko instalazioek eta suteak eragin ditzaketenek, ekipamenduen fabrikatzaileak eta/edo instalatzaileak indarreko legeriaren arabera (513/2017 Errege Dekretua, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena) ezarritako mantentze- eta erabilera-baldintzak bete beharko dituzte.

Instalazioak eta horien gabeziak ezagutu behar dira, eta indarreko arauak betetzen diren ala ez jakin. Edozein obra, mantentze-lan edo aldaketa eginez gero, eraikinaren baldintzak hobetu beharko dira. Obren lehentasuna honako hauek finkatuko dutela ulertzen da:

- Arkitektura-oztopoak kentzea.
- Ebakuazio-baldintzak hobetzea.
- Babes-bitarteko teknikoak hobetzea.

Gainera, Planean detektatutako akatsek ekipamenduak eraberritzeko eta ordeztzeko programa bat egiteko balio behar dute, honako hauek finkatuta:

- Berrikuntzarako lehentasunak.
- Gauzatzeko epeak.

Horregatik, Planaren mantentze eraginkorrerako xedatuta geratzen da Plan honetan ezarritako **giza baliabideen** aldaketak, txandakatzeak edo ordezkatzak gertatzen diren une berean definituko direla, eta haien izendapen formala sistemaren akta eta erregistroetan jasota geratuko dela.

Suteen aurka babesteko **bitarteko materialei** dagokienez, xedatuta dago babes-bitarteko horiek erabili edo narriatuz gero mantentze-enpresa ofizialari berehala jakinaraziko zaiola ahalik eta denbora laburrenean ordeztu edo berritu ditzan jakinarazpena egiten denetik.

Halaber, instalazio elektrikoaren eta larrialdietako argien kasuan ere, detektatutako gorabeherak eta gabeziak mantentze-enpresa ofizialari eta

zentroan dauden mantentze-langileei jakinaraziko zaizkie konpon ditzaten, betiere gertatutako gorabeheraren larritasunaren arabera, hilabete igaro baino lehen.

### 9.3 Ariketa eta simulakroen programa

Simulakroen bidez egiaztatuko da definitutako jarduketa-antolaketak eta -prozedurek behar bezala funtzionatzen dutela. Hau izango da simulakro batean nagusituko den filosofia:

- Autobabes Planaren operatibitatea eta eraginkortasuna egiaztatzea.
- Benetako arrisku-egoeren planteamendua eta egikaritzea baztertzea (sua, kea, etab.), kontua ez delako arrisku-egoerak eragitea nola aurre egiten zaien ebaluatzeko.
- «Lantokia ebakutzeko» ohitura hartzea.
- Ariketak egitea hainbat arrisku-egoera edo -foku hipotetiko planteatuz.
- Eguna eta ordua denek ezagutzen dituzten simulakroetatik abiatu eta gero eta jende gutxiagok ezagutzen dituztenekin jarraitu, simulakroak erabat ezustean egitera iritsiz.

Jarduketa Planaren Zuzendaritzak, bere funtzioak bere gain hartzeaz gain eta entitateko prebentzioaren arduradunaren laguntzarekin batera, kontuan hartuko ditu egiten diren akatsak eta baita ariketaren fase bakoitzaren hasierako eta amaierako orduak ere. Ariketa horiek egin ondoren larrialdietako taldea osatzen duten langileekin bilduko da, Autobabes Planaren funtzionamendu ona, egokitasuna eta hobekuntza posibleak egiaztatzeko.

Hasiera batean lanaldiko uneak aukeratuko dira ekoizpen-prozesuak ahalik eta kalterik txikiena jasan dezan.

Simulakroak aldi-aldi egin behar dira, urtean behin gutxienez. Ariketa bakoitzaren amaieran, Larrialdietako Jarduketa Planaren Zuzendaritzak txosten bat idatziko du. Txostenean jasoko ditu gertatutako gorabeherak, aurreikusitako planetako aldaketak, sortutako arazoak, pertsonen portaerak, eta abar; egin beharreko zuzenketak egingo ditu, eta informazioa Autobabes Planean txertatuko du.

#### **Ezbeharren ikerketa:**

Plan honen xedeetarako, «EZBEHARRA» dela ulertuko da Autobabes Plana – osorik edo partzialki– martxan jartzea behartu duen edozein gorabehera. Ezbehar baten ikerketa, simulakroak bezala, erakundeak larrialdietan funtzionatzen duela ikusteko modua da.

Enpresan larrialdi bat gertatuko balitz, haren sorrera, hedapena eta ondorioak ahalbidetu zituzten kausak ikertuko dira; larrialdiko pertsona eta taldeen portaera aztertuko da; eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.

Jarduketa Planaren Zuzendaritza izango da ikerketa-txostena egiteko arduraduna, eta, horretarako, istripuak ikertzeko egiten den prozedura bera egingo da.

## 9.4 Autobabes Plana osatzen duen dokumentazio guztia berrikusi eta eguneratzeko programa

Autobabes Plan hau hiru urtean behin gutxienez berrikusiko da 277/2010 Dekretuak ezartzen duen bezala, edo enpresan funtsezko aldaketak antzematen direnean, aldaketa horiek dokumentu honetan aintzat hartzen diren larrialdi-egoerei eragin diezaieketenean, larrialdi-egoera berriak sor ditzaketenean edo eskura dauden babes-baliabideei eragin diezaieketenean.

Kasu hauetan ere berrikusi beharko dira:

- Prestakuntza-ariketa praktikoak egin ondoren detektatutako anomaliak edo egindako hobekuntza-proposamenak (ebakuazio-ariketak, simulakroak, etab.).
- Proposamenak, iradokizunak eta Autobabes Planaren bestelako aukerak.
- Legeriaren aldaketak.
- Aldaketa garrantzitsuak instalazioa babesteko bitartekoen zuzkiduran.
- Arrisku-baldintzen aldaketa esanguratsua.
- Birkokatze garrantzitsuak instalazio barruan.

Autobabes Plana berrikusteko premia, halakorik badago, Autobabes Planaren arduradunak baloratuko du, Larrialdietako Jarduketa Planaren Zuzendaritzaren aholkularitzarekin.

Bestalde, Planaren eraginkortasunari eusteko jardueretatik, enpresak haiei buruzko informazioa gordeko du Administrazio Publikoen eskura, eta baita egin diren ebaluazio-txostenak ere, Autobabes Planaren arduradunak behar bezala sinatuta.

## 9.5 Auditoretza eta ikuskapenen programa

Jardueraren entitate titularrak bere kudeaketa-sisteman sartu behar ditu ezarritako antolakundea eta prozedurak egokiak direla ziurtatzeko beharrezkoak diren auditoretzak eta/edo ikuskapenak.

Autobabes Planaren berrikuspenarekin batera egingo dituzte eraikineko langileek edo eraikinetik kanpokoek, baina betiere modu independentean eta objektiboan.

# I. GEHIGARRIA: KOMUNIKAZIO-DIREKTORIOA

## 1.- LARRIALDIETAKO LANGILEEN TELEFONOAK

IZENA / KARGUA	TELEFONOA
AUTOBABES PLANAREN ARDURADUNA	<b>ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA – Dekanoa</b> 618 719 966 / 946 015 789 / 946 012 998
JARDUKETA-PLANAREN ZUZENDARITZA	<b>ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA – Dekanoa</b> 618 719 966 / 946 015 789 / 946 012 998
FACULTAD DE BELLAS ARTES - ARTE EDERREN FAKULTATEA	946 012 000

## 2.- KANPOKO LAGUNTZAKO TELEFONOAK

LARRIALDIAK EDO GERTAKARI LARRIAK ETA KONTROLATU GABEAK

**SOS DEIAK 112**

## 3.- KOMUNIKATZEKO BESTE MODU BATZUK

Eraikinak barne-megafonia bidezko komunikazio-sistema du, eta gela bakoitzean barne-telefonoak daude.

Gainera, LEIOAKO KANPUS-ak 24 orduko zaintza-zerbitzuak kudeatzen duen telebista-zirkuitu itxia (TZI) du.

## II. GEHIGARRIA: LARRIALDIAK KUDEATZEKO INPRIMAKIAK

# 1. ERANSKINA: JARDUKETA-TALDEAREN IZENDAPENA

## LARRIALDIETAKO TALDEA / EQUIPO DE EMERGENCIAS

### IKASKETA ORDUTEGIAN / HORARIO LECTIVO

#### JARDUKETA PLANAREN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DEL PLAN DE ACTUACIÓN (DPA)

IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	TELEFONOA / TELÉFONO
<b>ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA – Dekanoa</b>	<b>618 719 966 / 946 015 789 / 946 012 998</b>

#### LARRIALDIETAKO BURUA / JEFATURA DE EMERGENCIAS (JE)

TITULARRA / TITULAR	ORDEZKOA / SUPLENTE
<b>Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Dekanordea 688 673 666 / 946 012 972 / 946 012 993</b>	<b>Administrazio-burua 665 753 383 / 946 012 985</b>

*Jarduera Planaren Zuzendaritza, Larrialdietako Buruzagitza eta ordezkok ez badaude, larrialdietako kanpo-zerbitzuek hartuko dituzte beren gain beren gain beren eginkizunak, iristen direnean.*

#### KONTROL GUNEA / CENTRO DE CONTROL (CC)

FUNTZIOA / FUNCIÓN	ORDUTEGIA / HORARIO	IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	
		TITULARRA / TITULAR	ORDEZKOA / SUPLENTE
<i>Egiaztapena eta komunikazioa - Lehen esku-hartze taldea / Verificación y comunicación - Equipo de Primera Intervención</i>	07:30-14:30	Atezain nagusia 946 012 946	Mendekoa 946 012 982
	14:30-20:45	Atezain nagusia 946 012 946	Mendekoa 946 012 982

#### JARDUTEKO TALDEA / EQUIPO DE ACTUACIÓN (EA)

FUNTZIOA / FUNCIÓN	EREMUA / ZONA	IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO		
		LOKALAK / LOCALES	TITULARRA / TITULAR	IRTEERA / SALIDA
<i>Ebakuazio eta alarma arduradunak / Responsables de Evacuación y Alarma</i>	"0" solairua - Planta "0" MOREA-MORADO	0G10	<i>Administrazio-burua</i>	<i>LAMIA (B.P.: Zientziak)</i>
		0G11.1	<i>Saileko idazkaria</i>	<i>MARI (B.P.: Zientziak)</i>
		0B12	<i>Erreprografiako arduraduna</i>	<i>AMA (B.P.: Zientziak)</i>
	"0" solairua - Planta "0" GORRIA-ROJO	0A12	<i>Atezain nagusia</i>	<i>SUA (B.P.: Aparkalekua)</i>
		0A5	<i>Irakasleria</i>	<i>SUA (B.P.: Aparkalekua)</i>
		0E3	<i>Laborategiko teknikari espezialista</i>	<i>SUA (B.P.: Aparkalekua)</i>
	"0" solairua - Planta "0" LARANJA-NARANJA	0A6	<i>Irakasleria</i>	<i>LURRA (B.P.: Aparkalekua)</i>
		0C4	<i>Arte- eta gorputz-adierazpeneko ofizialen koordinatzailea</i>	<i>LURRA (B.P.: Aparkalekua)</i>
	"0" solairua - Planta "0" URDINA-AZUL	0C5	<i>Arte eta Gorputz Adierazpeneko ofiziala</i>	<i>ZERUA (B.P.: Lorategia)</i>
		0B7	<i>Irakasleria</i>	<i>ZERUA (B.P.: Lorategia)</i>
		0A11	<i>Irakasleria</i>	<i>ZERUA (B.P.: Lorategia)</i>
	"0" solairua - Planta "0" BERDEA-VERDE	0B8	<i>Irakasleria</i>	<i>BASOA (B.P.: Lorategia)</i>
		0F2	<i>Irakasleria</i>	<i>BASOA (B.P.: Lorategia)</i>
		0B11.4	<i>Irakasleria</i>	<i>BASOA (B.P.: Lorategia)</i>
	"0" solairua - Planta "0" BERDEA (Moduluak)-VERDE (Modulos)	0M1	<i>PENTER langileak</i>	<i>URA (B.P.: Lorategia)</i>
		0M7	<i>Irakasleria</i>	<i>BELARRA (B.P.: Lorategia)</i>
		0M11	<i>Irakasleria</i>	<i>URA (B.P.: Lorategia)</i>
		0M12	<i>Irakasleria</i>	<i>LOREA (B.P.: Lorategia)</i>
	"1" solairua - Planta "1" GORRIA-ROJO	1G6	<i>Liburutegiko arduraduna</i>	<i>SUA (B.P.: Aparkalekua)</i>
		1H6.1	<i>Laborategiko ofiziala</i>	<i>SUA (B.P.: Aparkalekua)</i>

## LARRIALDIETAKO TALDEA / EQUIPO DE EMERGENCIAS

### IKASKETA ORDUTEGITIK KANPO / FUERA DE HORARIO LECTIVO

#### JARDUKETA PLANAREN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DEL PLAN DE ACTUACIÓN (DPA)

IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	TELEFONOA / TELÉFONO
ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA – Dekanoa	618 719 966 / 946 015 789 / 946 012 998

#### LARRIALDIETAKO BURUA / JEFATURA DE EMERGENCIAS (JE)

IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	TELEFONOA / TELÉFONO
Leioako Campuseko Zaintza Zerbitzuko langileak	946 012 644

Jarduera Planaren Zuzendaritza, Larrialdietako Buruzagitza eta ordezkioak ez badaude, larrialdietako kanpo-zerbitzuek hartuko dituzte beren gain beren gain beren eginkizunak, iristen direnean.

#### KONTROL GUNEA / CENTRO DE CONTROL (CC)

FUNTZIOA / FUNCIÓN	ORDUTEGIA / HORARIO	IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	
		TITULARRA / TITULAR	ORDEZKOA / SUPLENTE
Egiaztapena eta komunikazioa - Lehen esku-hartze taldea / Verificación y comunicación - Equipo de Primera Intervención	20:45- 07:30	Leioako Campuseko Zaintza Zerbitzuko langileak	Segurtasuneko zerbitzua

#### JARDUTEKO TALDEA / EQUIPO DE ACTUACIÓN (EA)

FUNTZIOA / FUNCIÓN	EREMUA / ZONA	IZENA-ARDURA / NOMBRE-CARGO	
		TITULARRA / TITULAR	IRTEERA / SALIDA
Ebakuazio eta alarma arduradunak / Responsables de Evacuación y Alarma	Eraikin osoa / Edificio completo	Leioako Campuseko Zaintza Zerbitzuko langileak	Segurtasuneko zerbitzua

## 2. ERANSKINA: JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO	<i>Gainerako langileak, bisitak, kontratak...</i>
LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB eta KZ</i>
SUTEA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB eta JTko langileak</i>
LEHERKETA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak</i>
ZAURITUTAKO PERTSONAK ERAGINDAKO ISTRIPUA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak</i>
EBAKUAZIOA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak</i>
KONFINAMENDUA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak</i>
ISTRIPUA IZAN DUTEN, KONORTERIK EZ DUTEN EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN DESPLAZAMENDUA IZANEZ GERO	<i>JTko langileak</i>
HORNIDURA-MOZKETA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB eta JTko langileak</i>
KANPOKO ARRISKU KIMIKOA IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB eta KZ</i>
PORTAERA ANTISOZIALAK, EKINTZA BANDALIKOAK, BONBA-MEHATXUAK ETA ABAR IZANEZ GERO	<i>JPZ edo LB eta KZ</i>
FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIA IZANEZ GERO	<i>APA eta JPZ edo LB</i>

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

### LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO

### *Gainerako langileak, bisitak, kontratak...*

Larrialdi baten aurrean enpresaren jarduketa orokorrak hurrengo jarraibidean azalduko den prozedurari jarraitu behar dio.

- ✓ Kanpoko pertsonen talde bat egonez gero, arduradunaren datuak eman behar dira. Kanpoko langileek larrialdi baten aurrean jarduteko jarraibideei, ibilbideei eta ebakuazio-irteerei buruzko informazioa jaso behar dute.

### **LARRIALDIA DETEKTATZEA:**

Larrialdi-egoera bat detektatzen duen pertsona orok, izan sute-hasiera bat, istripu bat edo dena delakoa, modu honetan jokatu behar du:

- ✓ Eman gertakariaren berri entitate antolatzaileko edozein pertsonari. Langilerik ez badago, aktibatu larrialdiko sakagailuak.
- ✓ Saihestu gainerako pertsonari izua sor diezaieketen jarrerak.
- ✓ Eten larrialdia eskura dituzun bitartekoekin, baldin eta posible bada eta zure osotasunerako arriskurik ez badakar. Eskatu laguntza ingurukoei larrialdiak hala eskatzen badu, eta ondoren eman berri pertsona arduradunari egoera kontrolatuta geratu bada.
- ✓ Inguruko pertsonarik falta dela ohartzen bazara, eman horren berri Larrialdietako Taldeei.

### **LARRIALDIETAKO TALDEEN JARDUKETA:**

Larrialdietako Taldeak lastertasunez eta zuhurtziaz joango dira eraginpeko eremura arriskua ebaluatzeko eta larrialdia sailkatzeko behar den informazioa biltzeko. Badira larrialdia izanez gero lan egiteko izendatutako pertsonak, agindu eta prestakuntza egokiak dituztenak.

### **EBAKUAZIO OROKORRA:**

**GARRANTZIZKOA** *Ebakuazio-premia dekretatu ondoren, bertan dauden pertsona guztiei berehala emango zaie informazioa.*

Seinaleztatutako bideei jarraituz egingo da, hurbilen dagoen irteeraraino, eta ondoren, Elkarguneraino, larrialdietako taldearen beste edozein argibide kontuan hartuta.

Larrialdietako Taldeek espazio bakoitza egiaztatuko dute, barruan inor ez dagoela bermatuz eta, bideragarria denean, Elkargunean pertsonak kontrolatuko dituzte.

ELKARGUNEA	B.P.01: Aparkalekua / B.P.02: Lorategia / B.P.03: Zientziak
	<p><b>Ebakuazioko arau orokorrak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Une oro bete larrialdietako langileen jarraibideak.</li> <li>• Lasai geratu (eremutik korrika egin gabe alde egin).</li> <li>• Kea badago: lau hankan joan eta arnasbideak zapi bustiekin babestu.</li> <li>• Jarraibideen zain egon.</li> </ul>

### **LARRIALDIAREN AMAIERA:**

**JPZk edo LBk** amaitutzat emango du larrialdia, bere iritzian egoera kontrolatuta badago eta erabiltzaileentzat arriskurik ez badago. *Ez da barrutiaren barrualdera itzuli behar, salbu eta berriaz jakinarazi ez bada jada arriskurik ez dagoela.*

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO

Komunikazio Zentroa

**ABISU-SEINALEAK EGIAZTATZEA:**

**Komunikazio Zentroan** izendatutako langileek Suteen Zentralaren bidez automatikoki sortutako abisu-seinaleak egiaztatuko dituzte.

**SUTEEN ZENTRALA MANEIAITZEKO OINARRIZKO JARRAIBIDEAK**



- 01.- Biratu giltza eskuinera ekipoa desblokeatzeko.
- 02.- Pantailan ikusi seinalearen jatorrizko eremuaren kodea.
- 03.- Burrunbagailuaren kasuan, hura isildu daiteke, baina sirena ez.
- 04.- Egiaztatza joan ondoren, berretsiz gero, itzuli eta «Ebakuazio» agindua eman.
- 05.- Egiaztatza joan ondoren, alarma faltsua izanez gero, itzuli eta «Isiltzeko» agindua eman. Inoiz ez da alarma-sirena isildu behar egoera egiaztatu arte!
- 06.- Egoera kontrolatu denean eta «Reaarme» agindua eman sistema berrabiarazteko eta babes-maila mantentzeko.

Suteen Zentrala honela dago programatuta:

Eraikinean dauden detektagailuetako edozeinek seinalearen % 65eko balio analogikoa gainditzen duenean aktibatzen da, balio hori % 80ra iristen denean, “Fin retardo/Evacuación” agindua gainditzen duenean..

“Fin retardo/Evacuación” aginduak aurrealarmaren gainerako denbora ezabatzen du, eta sistema guztiak aktibatzen ditu, hala nola sirenak eta lokuzioa dituen alarma, sektorizazioa ixtea eta lotutako beste funtzio batzuk. Detektagailuak neurtzen duen balio analogikoa % 80ra iristen ez bada, aurrealarman bakarrik geratuko da, eta ez du alarma piztuko.

**SUTEA, ISTRIPU LARRIA ETA ABAR GERTATUTAKOAN EGIN BEHARREKOA:**

Egiaztatu ondoren, oraindik ez bada automatikoki eman, **KZk** Suteen Zentralaren «ebakuazio» agindua emango du, alarma orokorraren sirena eta eraikinaren gainerako babesak aktibatuz. Ondoren, **JPZri** edo **LBri** eta **JTko** kideei jakinaraziko die. **JPZk** edo **LBk** hala adierazten badu, **KZk** kanpoko laguntza-zerbitzuei deituko die.

**EBAKUAZIOAREN KASUAN EGIN BEHARREKOA:**

Ebakuazioa dekretatuz gero, **JPZren** edo **LBren** jarraibideei jarraituz, **KZk** ahoz jakinaraziko du eraikinaren edo eragindako eremuaren ebakuazio-premia, eta megafonia izanez gero, erreferentzia-mezu honekin, hiru aldiz arte:

**ADI! SEGURTASUN-ARRAZOIENGATIK ERAIKIN/GUNE HAU HUSTU EGIN BEHAR DA.  
JARRAITU ARDURADUNEN AGINDUAK ELKARGUNERA IRITSI ARTE.**

**¡ATENCIÓN! POR RAZONES DE SEGURIDAD VAMOS A PROCEDER A LA EVACUACIÓN DEL EDIFICIO/ZONA. SIGAN LAS INDICACIONES DEL PERSONAL RESPONSABLE HASTA LLEGAR AL PUNTO DE REUNIÓN.**

Ondoren, **KZk** igogailuak blokeatu behar ditu beheko solairuan, eta automatikoki blokeatzen badira, blokeatuta daudela egiaztatu beharko du.

Esleitutako funtzioak amaitu ondoren, **KZ Elkargunera** joango da, gainerako pertsonak bezala.

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

SUTEA IZANEZ GERO

JPZ edo LB eta JTko langileak

**ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:**

Megafoniak funtzionatu ez badu, **KZk** lantokia zeharkatuko du larrialdiaren jatorritik abiatuta, pertsoneri arriskuaren jatorria jakinaraziz.

Abisua ematen denean, **JPZ edo LB** eta **JTko** kideak berehala joango dira larrialdiaren lekura. Kokalekuan bertan, **JPZk edo LBk** sutearen larritasuna baloratuko du (garrantzia, kontrolatzeko aukerak, zaurituak, etab.), eta erabakiko du kanpoko laguntza-zerbitzuei abisatu behar zaien ala ez.

**KOKALEKUAN JARDUTEA:**

**JPZk edo LBk** erabakiko du zer ekintza egingo diren sutea kontrolatzeko edo ebakuazioa dekretatzeko, eta eragindako sektorean esku hartzeko funtzioak dituzten **JTko** langileei jakinaraziko die. Larrialdiaren jatorri-fokuan esku hartzen saiatuko dira eskura dituzten babes-baliabideekin eta duten prestakuntzaren eta ezagutzaren arabera, irizpide hauei jarraituz:

- ✓ **Ahal den heinean, ez utzi sutea hedatzen:** Urrundu *material erregaia edo sukoa, sutea itxita utzi (ateak, leihoak eta abar itxi)*. Sutea elika dezaketen fluidoak moztu.
- ✓ **Eskura dauden baliabideekin sutea nola kontrola daitekeen aztertu, sua itzaltzeko baliabide egokiak aukeratu:** Erabili suteetako *ur-hargune hornituak (aurrez energia elektrikoa moztu beharko da), itzalgailu eramangarriak (hautsa, CO<sup>2</sup>)*.
- ✓ **Ebakuazioa dekretatu eta ebakuazioan lagundu.** Kendu ebakuazio-bideetan dauden oztopo guztiak. Zure ardurapean dagoen eremutik alde egin baino lehen, egin «EKORKETA» bat inor ez dagoela egiaztatzeko. Ondoren, ebakuatu eremua.
- ✓ **Kanpoko zerbitzuen arduradunei egoeraren berri eman eta sutearen, lokalaren, egon litezkeen material sukoiaren eta harrapatuta egon litezkeen langileen ezaugarriak azaldu.**

**KONTUZ!** «Galdara-gela» edo «Transformazio-zentroa» bezalako arrisku lokal edo eremuetan sutea izanez gero, **ez da barrura sartu behar instalazioaren berezko arriskuagatik, eta itzaltze automatikoa izanez gero, deskargatu badu asfixia-arriskua dagoelako.**




**Arreta-neurriak:**


-Ez erabili sute elektrikoetan: Urak elektrizitatea eroan dezake, eta elektrokuzio-arriskua areagotu.

-Aurretiko prestakuntza: **SUH**en erabilerari buruzko prestakuntza jasotzea komeni da, segurtasunez eta eraginkortasunez jarduteko

**SUHren erabilera:**



Armairuaren estalkia ireki edo kristala hautsi.  
Birtu harilkaia kanporantz.




Pertsonetako batek bi eskuekin ertsiko dio ahokoari. Besteak balbula irekiko du bolantea ezkererantz biratuz, eta lehenengoari lagunduko dio.



Sua ikusterik ez badago, sabaia eta hormen gainean ere botako da mugimendu birakari batekin, azalerarik handiena hartzeko eta sutan dagoen barrutia ahalik eta gehien hozteko.



Lantza hartuta, zabaldu mahuka POLIKI sua dagoen norabidean



Ur-langarra botako da, ahal den guztietan, sutan dauden objektuen gainera, sua urrutitik eraso behar ez bada behintzat; kasu horretan, zurrusta gisa irismen handiagoa du.



Kea oso lodia bada, makurtzeko posizioa da arinena eta hobeto arnastuko da ur-zurrustara hurbilduz gero. Sua itzaltzeko prozesua luzatzen bada, hobe da arnas ekipoa erabiltzea.

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

SUTEA IZANEZ GERO

JPZ edo LB eta JTko langileak



**Ebaluatu zure segurtasuna:**

-Ziurtatu irteera segurua duzula eta sua ez dela handiegia su-itzalgailu batekin kontrolatzeko.

-Mantendu distantzia: Mantendu sutatik distantzia segurua su-itzalgailua erabiltzen duzun bitartean, normalean 2-3 metro inguru.

**Identifikatu su-mota:**

-Erabili su-itzalgailu egokia. Suak honela sailkatzen dira: (A klasea: Material solidoak, hala nola zura, papera eta oihala; B klasea: Likido sukoiak, hala nola gasolina eta olioak; C klasea: Ekipo elektrikoak; D klasea: Metal erregaiak; K klasea: Sukaldeko olioak eta koipeak;

**Su-itzalgailuaren erabilera:**

-Jarraitu PASS akronimoari: (P (Pull): Tira segurtasun-larakoari; A (Aim): Apuntatu su-itzalgailuaren ahokoa suaren oinarriara; S (Squeeze): Estutu eskulekua agente itzaltzailea askatzeko; S (Sweep): Mugitu ahokoa alde batetik bestera, suaren oinarria apuntatzen duzun bitartean.



Balbularen segurtasun-larakoak kendu, uztaiari buelta eman ez zinta hautsi arte.



Sutera hurbildu aurretik, egin probako jaurtiketa txiki bat, sutera hurbilduz haizearen norabidean.



Sutara gerturatu tenperaturak horretarako aukera ematen duen lekuraino, eta estutu katua, su-itzalgailua posizio bertikalean mantenduz eta suaren oinarriari begira.



Su-itzalgailua modu jarraituan deskargatu, ahokoa alde batetik bestera mugituz, eta su-ingurua estaliz agente itzaltzailearekin.

**JARDUKETAREN AMAIERA:**

JPZ edo LBri dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARUKETA-JARRAIBIDEAK

### LEHERKETA IZANEZ GERO

### JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak

Edozein larrialdi-egoeratan lantokian leherketa bat sortzen bada, **JPZk edo LBk, Jarduketa Taldeko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

#### ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:

Megafoniak funtzionatu ez badu, **KZk** lantokia zeharkatuko du larrialdiaren jatorritik abiatuta, pertsoneri arriskuaren jatorria jakinaraziz.

#### KOKALEKUAN JARDUTEA:

**JPZ edo LB** eta Jarduketa Taldeko kideak berehala joango dira larrialdiaren lekura. Ondorioak azkar eta lasaitasunez aztertuko ditu, eta **SOS Deiak 112** kanpoko larrialdi-zerbitzuei abisatu ala ez erabakiko du. Abisatzea erabakitzen badu, norbait izendatuko du kanpoko zerbitzuei harrera egiteko eta ezbeharraren lekura bideratzeko. Gainera, ondorioak kontrolatzeko edo, behar izanez gero, ebakuazioa egin ala ez erabakiko du:

- ✓ Eragindako kalteak areagotzea ekiditeko ahalegina egingo da.
- ✓ Leherketan zauritutako langileak artatu eta ebakuatu egingo dira.
- ✓ Sortutako suak itzaliko dira.
- ✓ Altzariekin, zurezko zatiekin, habeekin eta abarrekin kendu edo zurkaiztu behera erortze bat, beste leherketa bat edo sute bat eragin dezaketenean edo zaurituei edo horiei laguntzera joaten direnei lesioak eragin diezazkieketen materialak.
- ✓ Behar izanez gero, fokuak, linternak eta argi elektrikoko aparatuak jarri.
- ✓ Biktimak hornen inguruetatik bereizi eta eraikinaren erresistentzia-puntuetatik gertu dauden lekuetara eraman. Hildakorik izan bada, hondamendiaren gunetik eta zaurituak eta kuriosoak dauden tokitik urrun jarri.
- ✓ Zaurituak kontu handiz lokalizatu eta askatu, mugimendu bortizik eta tiradizorik egin gabe eta hondakinak poliki mugituz, biktima gehiago ager baitaitezke.

#### JARUKETAREN AMAIERA:

**JPZ edo LBri** dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

**ZAURITUTAKO PERTSONAK ERAGINDAKO ISTRIPUA  
IZANEZ GERO**

**JPZ edo LB, KZ eta JTko  
langileak**

Edozein larrialdi-egoeratan lantokian istripu larri bat gertatzen bada, **JPZk edo LBk, Jarduketa Taldeko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

### ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:

Megafoniak funtzionatu ez badu, **KZk** lantokia zeharkatuko du larrialdiaren jatorritik abiatuta, pertsoneri arriskuaren jatorria jakinaraziz.

### KOKALEKUAN JARDUTEA:

**Izan beharreko jokabidea: BAL (BABESTU - ABISATU - LAGUNDU):**

Lehenik eta behin, beti: **BABESTU** istripu bat gertatu den lekua, edo gaixo bat, beste istripurik gerta ez dadin eta, gainera, gure segurtasuna arriskuan jar ez dadin.

Ondoren: **ABISATU SOS Deiak 112** larrialdietako kanpoko zerbitzuei. Horretarako, ahalik eta datu gehien emango ditugu, eta ahalik eta modurik argienean eta motelenean. Hauek adieraziko ditugu:

- ✓ Gure izena eta deitzeko erabili dugun telefono-zenbakia.
- ✓ Zer gertatu den edo zer ari den gertatzen.
- ✓ Gorabeheraren helbidea edo eragindako pertsonaren egoera. Behar izanez gero, ahalik eta erreferentzia gehien emango ditugu lekua zein den adierazteko.
- ✓ Zauritu-kopurua, egonez gero, eta zer arazo-mota duten.
- ✓ Egoera okertu dezaketen arriskuak.
- ✓ **Itxaron egingo dugu** informazioa ondo ulertu dela adierazten diguten arte.


**LAGUNDU** biktimari edo gaixoari

Bat baino gehiago badaude, laguntza iritsi arte larrienari lagunduko diogu aurrena.

### EZ BADA KIGU ZIUR ZER EGINGO DUGUN, HOBE DA EZER EZ EGITEA!!!

Lehen sorospenen prestakuntza teorikoa eta praktikoa izanez gero, zehaztu zer-nolako lesioak dituen, jarduketa-lehentasanak ezartzeko eta egoera ez okertzeko zer neurri hartu behar ditugun erabakitzeko.

- ✓ Begiratu kontziente dagoen eta galdetu non duen mina eta zer gertatu zaion.
- ✓ Kordea galdu badu eta istripu traumatikoa izan ez bada (eroriko handia, trafikoko istripua, leherketa...), Albokako Segurtasunezko Posizioan (ASP) ipiniko dugu.
- ✓ Ahoa zabalduko diogu okada errazteko eta arnasari erreparatuko diogu.
- ✓ Zauritua edo gaixoa estali eta bero mantenduko dugu.



### JARDUKETAREN AMAIERA:

**JPZ edo LBri** dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

### EBAKUAZIOA IZANEZ GERO

### JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak

Edozein larrialdi-egoeratan lantokian ebakuazioa dekretatzen bada, **JPZk edo LBk, JTko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

#### ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:

Megafoniak funtzionatu ez badu, **KZk** lantokia zeharkatuko du larrialdiaren jatorritik abiatuta, pertsoneri ebakuazio-agindua emanaz.

#### KANPORAKO EBAKUAZIOA EDO KONFINAMENDUA:

Ahal den guztietan, pertsona guztiak kanpora zuzenduko dira kasu bakoitzean hurbilen dagoen ebakuazio-bidetik.

Ebakuazio-funtzioak dituzten **JTko** langileak eremu edo solairu bakoitzean ebakuazio- edo konfinamendu-jarduketak zuzentzen hasten dira.

SOLAIRUA	JARDUKETA	OHARRAK
BEHEA	Elkargunera ebakuatzea	13 irteera daude horizontalean.
LEHENA	Elkargunera ebakuatzea	Beherezko ebakuazioa duten 2 eskailera eta arrapala bat dituzte.

Lehenik, larrialdiaren jatorri-fokutik hurbilen dauden gelak husten hasi behar da. Gainerako solairuak edo barrutiak ordenan hustuko dira, ebakuazio-bideetatik hurbilen dauden geletatik hasita. Irizpide berari jarraituz, kanpora irteera horizontala duten solairuak edo barrutiak ebakuatuko dira lehenik:

- ✓ Elkargunea zein den jakinaraziko da, lasaitasuna transmitituz eta ebakuazioa «**KORRIKA EGIN GABE**» egiteko premia adieraziz.
- ✓ Buxatuta egon daitezkeen ebakuazio-bideak gaitu, edo erabilgarri dauden alternatibak adierazi.
- ✓ Ebakuazio-bidean kea badago, bide hori ez da erabiliko, ordezko bide bat bilatuko da, eta, beste aukerarik ez badago, eraikinetik edo solairutik urrunago dauden eremuetan konfinatuko dira, ahal bada beste sute-sektore batean. Geletan geratu behar izanez gero, zapi bustiak sartu ate-zirrikietan eta, ahal izanez gero, leihoak pixka bat ireki. Kokapen zehatza ikusarazi edo jakinarazi.
- ✓ Lehentasuna eman behar zaio mendekotasuna duten langileei laguntzeari (gurpil-aulkiak, etab.). Kasu horretan, eskailerak ezin badira erabili, sutea kontrolatuta dagoen edo sutearen aurka babestuta dagoen sektore batean kokatuko dira.
- ✓ Instalazio elektrikoak erabiltzea galarazi behar da (igogailuak...).

#### EBAKUAZIOAREN EGIAZTAPENA:

Solairu/eremu bakoitzeko ebakuazioaz arduratzen diren pertsonak egiaztatu beharko dute beren ardurapeko espazioa hutsik geratzen dela, baita komunikaziorik gabeko lokalak ere, betiere haien segurtasuna eta osasuna lehenetsiz. Langilerik ez badago, lokalizatzeari ekingo zaio, baldin eta hori bideragarria bada segurtasunerako eta osasunerako arrisku berrien eraginpean jarri gabe.

Kanpoaldean, ebakuazioa jakinarazi behar zaio **JPZri edo LBri**, eta eremuren bat egiaztatu ezin izana edo okupatzaileetako batzuk konfinatu izana, hala badagokio.

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

EBAKUAZIOA IZANEZ GERO

JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak

ELKARGUNEA



B.P.01: Aparkalekua / B.P.02:  
Lorategia / B.P.03: Zientziak

**Ebakuazioko arau orokorrak:**

- Une oro bete larrialdietako langileen jarraibideak.
- Lasai geratu (eremutik korrika egin gabe alde egin).
- Kea badago: lau hankan joan eta arnasbideak zapi bustiekin babestu.
- Elkargunera joan eta jarraibideen zain egon.

**JARDUKETAREN AMAIERA:**

JPZ edo LBri dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

### KONFINAMENDUA IZANEZ GERO

### JPZ edo LB, KZ eta JTko langileak

Eraikinaren **kanpoaldean larrialdi-egoera bat gertatzen denean**, batzuetan seguruagoa izaten da eraikinaren barruan geratzea irtetea baino. Egoera hori gerta daiteke kanpoko arrisku kimikoa edo fenomeno meteorologiko kaltegarria (FMK) izanez gero edo kanpoan beste mehatxu batzuk gertatzen direnean.

Edozein larrialdi-egoeratan lantokian konfinatzeko premia dekretatzen bada, **JPZk edo LBk, JTko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

#### ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:

Megafoniak funtzionatu ez badu, KZk lantokia zeharkatuko du larrialdiaren jatorritik abiatuta, pertsoneri konfinamendu-agindua emanez.

#### KONFINAMENDU-JARDUKETA:

**JPZ edo LB Jarduketa Taldeko** langileekin bilduko da, eta pertsonak banatuko dituzte, eraikineko **irteera guztiak itxiko direla** bermatzeko.

Eraikinaren ekorketa bat egingo da, goiko solairuetatik eta beheerantz. Gelaz gela gertatzen denaren berri emango zaie pertsoneri, eta konfinamendu-lekua adieraziko zaie:

- ✓ Konfinamendu-lekua zein den jakinaraziko da, lasaitasuna transmitituz eta ebakuazioa «KORRIKA EGIN GABE» egiteko premia adieraziz.
- ✓ Pertsonak modu ordenatuan eramaten lagunduko da eta behar den laguntza eskainiko da. Lehenetasuna eman behar zaio mendekotasuna duten langileei laguntzeari (gurpil-aulkiak, etab.). Kasu horretan, eskailerak ezin badira erabili, sutea kontrolatuta dagoen edo sutearen aurka babestuta dagoen sektore batean kokatuko dira.
- ✓ Arrisku-egoeraren arabera, instalazio elektrikoak (igogailuak...) erabiltzea galaraztea gomendatzen da.
- ✓ Baliaezintasunik handiena dutenei edo zailtasunak dituztenei lehenetasuna emango zaie.
- ✓ Ez dela inor geratzen egiaztatuko da, eta ateak eta leihoak ixten joango dira.

#### KONFINAMENDUAREN EGIAZTAPENA:

Solairu/eremu bakoitzeko ebakuazioaz arduratzen diren pertsonak egiaztatu beharko dute beren ardurapeko espazioa hutsik geratzen dela, baita komunikaziorik gabeko lokalak ere, betiere haien segurtasuna eta osasuna lehenetsiz.

Langilerik ez badago, lokalizatzeari ekingo zaio, baldin eta hori bideragarria bada Jarduketa Taldeko langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskurik eragin gabe.

Gero konfinamendu-lekuan ebakuazioa jakinarazi behar zaio **JPZri edo LBri**, eta eremuren bat egiaztatu ezin izana edo okupatzaileetako batzuk konfinatu izana, hala badagokio.

#### JARDUKETAREN AMAIERA:

**JPZ edo LBri** dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

ISTRIPUA IZAN DUTEN, KONORTERIK EZ DUTEN EDO  
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN DESPLAZAMENDUA  
IZANEZ GERO

*JTko langileak*

**Balorazioa** egin beharko da beti, eta beharrezkoak diren neurriak hartu, pertsonaren ezaugarrien arabera.

Ondoren deskribatuko ditugun prozedurak minusbaliotasun fisikoa izateagatik beren kasa mugitu ezin diren eta egoera kontuan hartuta nahitaez ebakatu behar diren pertsonen soilik aplikatu dakizkieke. Ez zaie istripua izan duten guztiei aplikatu behar. Horiek lekualdatzeko beste irizpide batzuk aplikatuko dira, eta nahitaezkoa da lehen sorospenetako oinarrizko prestakuntza.

**PERTSONA BAKARRAK LEKUALDATZEA**

1. **irudia:** Sorbaldara altxatuta ebakutzeara, bizkarretik pasatutako esku baten bidez edo eskuak lotuta dituela.
2. **irudia:** Bizkarrean ebakutzeara.
3. **irudia:** Eskailera bat jaitsi behar denean, modurik onena biktima bizkarrean etzatea izango da, burua eskaileretarantz duela. Sorosleak bi eskuak besoen azpian jarriko ditu eta burua besoetako baten gainean bermatuko du. Eskailerak poliki-poliki jaitsi beharko ditu, biktimaren oinak arrastaka eramanez.



1. irudia



2. irudia



3. irudia

Sutearen kasuan eta kea badago, erreskatatzen duen pertsonak lurzoruaren arrasean egin beharko du ebakuazioa.

4. **irudia:** Biktima bizkarrez; erreskatatzailea lau oinean, desgaitasun motorra duen pertsona lurrean arrastatuz eta irristatuz.
5. **irudia:** Erreskatea egiten duen pertsonaren bizkarraren gainean.



4. irudia



5. irudia

**BI PERTSONA EDO GEHIAGOK LEKUALDATZEA**

6. **irudia:** Lau eskuko eserlekua egingo dute eta horren gainean biktima eraman, beso bat izter azpian dela eta elkarri eskumuturretatik helduta. Bi besok eserlekuaren bermea osa dezakete, eta beste biek bizkarrarentzako bermea. Erreskatea egiten duten bi pertsonak poliki-poliki altxatzen dute biktima.
7. **irudia:** Larrialdi batean aulki bat ere erabil daiteke garraio bide gisa, eta biktima eserita ipini aulkian emeki utziz.



6. irudia



7. irudia

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

ISTRIPUA IZAN DUTEN, KONORTERIK EZ DUTEN EDO  
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN DESPLAZAMENDUA  
IZANEZ GERO

*JTko langileak*

- 8. irudia:** 7. irudiaren antzeko posizioan, baina aukirik gabe.  
**9. irudia:** Bi pertsonak heltzen diote biktimari, bakoitzak sorbaldaren alde bakoitzetik.



8. irudia




9. irudia

ANDAN EDO INPROBISAZIO BIDEZ LEKUALDATZEA

Andarik ez badago, ate edo kontraleiho bat, ohol edo taula zabal bat eta abar erabili ahal izango dira. *Presazko premia badago eta bestelako baliabiderik ez badago, adibidez, behar bezain erresistenteak diren bi makila edo ohol erabil daitezke, manta batekin edo sorosle gisa jarduten duten bi pertsonen jakekin batera.*

- 10. irudia:** Irudian ikus daiteke biktima nola hartu eta nola jarri behar den andan.



10. irudia

ELKARGUNEA



*B.P.01: Aparkalekua / B.P.02: Lorategia / B.P.03: Zientziak*

**Ebakuazioko arau orokorrak:**

- Une oro bete larrialdietako langileen jarraibideak.
- Lasai geratu (eremutik korrika egin gabe alde egin).
- Kea badago: lau hankan joan eta arnasbideak zapi bustiekin babestu.
- Elkargunera joan eta jarraibideen zain egon.

JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

HORNIDURA-MOZKETA IZANEZ GERO


JPZ edo LB eta JTko  
langileak

Ezbehar bat dagoela detektatzean, zuzenean edo zeharka zein instalaziori eragiten dion baloratu behar da, eta komeni da mozketari lehenetasuna ematea, betiere izendatutako pertsonaren segurtasuna eta osasuna bermatuta.

Eragiten duela baloratuz gero, funtzio horrekin izendatutako pertsonak, edo, halakorik ezean, **JPZk** edo **LBk** honela jardun beharko du:

Eraikineko gas naturalaren hornidura ixteko **giltzak bat galdara-gelaren ondoan (0A14 lokala), eta bestea iparraldeko fatxadan ekialdean daude.**

**Lehenetasunezko ekintza gisa ezartzen da, batez ere erregai-ekarpen zuzena duten eta fokutik gertu dauden instalazioetako suteetan, eta beti gomendagarria da.**




Eraikineko hornidura elektrikoa ixteko giltza orokorra **koadro elektrikoaren gelan (0A15 lokala):**

*Hornidura elektrikoa moztea ez da lehenetasunezko ekintza izango langile eta erabiltzaile guztien ebakuazioa amaitu arte. Kontuan hartuko da, arrisku elektrikoa duen foku potentzial baten gainean SBI bitarteko urtsuekin esku-hartze bat hasiko balitz, aurrez moztu egin beharko litzatekeela. Kasu horretan, instalazioa ezagutu beharko da sarea elikatzen jarraituko duen sorospen-linearik, ekipo elektrogenorik, UPSrik eta abarrik ez dagoela bermatzeko.*

Ur-hornidura ixteko giltza orokorra **00C6.2 lokalean dago.**

*Ur-hornidura etetea ez da lehenetasunezko ekintza gisa ezarri, larrialdiaren fokua bera izan daitekeen kasuetan edo egoeraren arriskua areagotu daitekeen kasuetan izan ezik, hala nola instalazio elektrikoekin kontaktua izateagatik edo instalazio horietatik gertu egoteagatik, produktu kimiko espezifikoengatik...*



Kanpoko zerbitzuek (SUHILTZAILEAK) esku hartzen badute, hornidura horien egoeraren berri eman beharko da.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

### KANPOKO ARRISKU KIMIKOA IZANEZ GERO

### JPZ edo LB


Edozein larrialdi-egoeratan **kanpoko alerta kimiko** bat sortzen bada, agintariak megafonia bidez edo irrati, telebista edo sare sozialek igorritako abisuen bidez emango dute abisua.

Arrisku kimikoak dituzten enpresek eragindako hiri-inguruneetan, sirenak daude instalatuta, eta honela jarduten dute:

Kanpoko komunikazioa jasotakoan, **JPZk edo LBk, Jarduketa Taldeko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

#### ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:

Kanpoko alerta sirena baten bidez iragarriko da, eta minutu bateko hiru seinale errepikatuko ditu, bost segundoko isiltasun tartearekin.



#### KOKALEKUAN JARDUTEA:

**JPZk edo LBk** eta Jarduketa Taldeko kideek langile eta erabiltzaile guztiei berehala jakinaraziko dizkiete agintariak gomendatutako jarduketa-jarraibideak, eta horren arabera jardungo da.

Kasu gehienetan konfinamendu bat egin beharko da eraikinaren barruan. Horregatik, abisua jasotzean kalean bazaude, babestu amasbideak eta babestu zaitez. Hobe da barruko espazioetan geratzea.

Itxi ateak, leihoak, pertsiak eta aire-sarrera guztiak. Ahal izanez gero, zigilatu kanporako irekierak (zinta isolatzailearekin, trapu hezeekin...)


Saiatu komunikabideen bidez (irratia, telebista edo sare sozialak, etab.) informazioa jasotzen

Kanpoko airearen edozein sarrera itxi egin behar da, eta itzali egin behar dira eta ez dira erabili behar kanpoan aire-sarrerak dituzten aireztapen- eta berokuntza-sistemak.

Ez da kalera irten behar larrialdia amaitu arte edo **JPZren edo LBren** komunikazio bat jaso arte. Agintariak egoeraren garapenaren arabera abisatuko dute.

#### JARDUKETAREN AMAIERA:

Alertaren amaiera sirena-seinale jarraitu batekin iragarriko da 30 segundoz.



**JPZ edo LBri** dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

**PORTAERA ANTISOZIALAK, EKINTZA BANDALIKOAK, BONBA-MEHATXUAK ETA ABAR IZANEZ GERO**

*JPZ edo LB eta KZ*

Edozein larrialdi-egoeratan lantokian bonba-abisu edo sabotaje bat gertatzen bada, **JPZk edo LBk, Jarduketa Taldeko** kideek lagunduta, irizpide hauen arabera jardungo dute:

### **ALARMAREN KOMUNIKAZIOA:**

#### **Edozein egoeratan:**

Kasu guztietan, gertakarien berri emango zaio Ertzaintzari **112ra** deituz, eta haien jarraibideei jarraituko zaie.

#### **Ekintza bandalikoan, lapurretaren eta abarren kasuan:**

Lehenik eta behin, ziurtatu ekintza egin duen pertsona edo pertsonak joan direla. Bestela, inoiz ez aurre egin.

- ✓ Instalazio elektrikoetan, altzarietan eta abarretan izandako suntsiketen ondorioz ez dagoela arriskurik egiaztatu beharko da. Larrialdi-egoera bat izan gabe arrisku-egoera badago, eremua mugatu, balizatu eta seinaleztatu egin beharko da beste kalte batzuk saihesteko.

#### **Indarkeriazko edo mehatxuzko pertsonen portaera antisozialen kasuan:**

Ahal den guztietan, indarkeria-egoerak saihestuko dira, eta elkarrizketaren eta komunikazioaren bidez jardungo da. Liskarrak eta eraso fisikoak saihestu.

Eraikineko langileak eta erabiltzaileak urrundu eta pertsona gatazkatsua aldendu edo beste gune bereizi batera bideratu; inoiz ez dio pertsona bakar batek aurre egin behar.

#### **Telefonoz egindako bonba-mehatxuen edo antzekoen kasuan:**

Beste edozein deiri bezala erantzun, xehetasun guztietan arretarik handiena jarritz. Jasotako mezua idatzi, ahal izanez gero hitzez hitz.

- ✓ Ahotsaren tonuari erreparatu, kontuan izan solaskidea desitxuratzen ahalegintzen den eta gizonezkoa ala emakumea den. Saiatu deia telefono publiko batetik edo pribatu batetik egin den detektatzen. Ahal izanez gero, hiri barnekoa edo hiriartekoa den bereizi. Mezua amaitzen duenean, ahalegindu errepikarazten interferentziak egon direla edo ondo ez duzula entzun argudiatuz, eta egiaztatu bat datozen. Idatzi datu guztiak, eta deia zer ordutan izan den eta zenbat iraun duen.
- ✓ Saihestu alarma eragin dezakeen ekintza edo ez-egite oro. Ez alde egin lanpostutik horretarako agindua jaso arte.

### **MEHATXUAREN KOKALEKUAREN ARABERA:**

Aktibatu kanporako **EBAKUAZIO-PLANA** (ikus jarraibidea).

- ✓ Mehatxua eraikinen kanpoaldean bada, erabaki zein den eraikineko irteera seguruena, eta eremu arriskutsura ematen duten irteerak blokeatu egingo dira (ahal izanez gero, Ertzaintzari kontsultatu), eta, hala badagokio, beste ELKARGUNE bat ezarriko da leku seguru batean.

Aktibatu **KONFINAMENDU-PLANA** (ikus jarraibidea).

- ✓ Beharrezkoa izanez gero, pertsonak eraikinaren barruan konfinatuko dira. Hasiera batean, eremu seguruena mehatxutik urrun dagoen eremuren bat izango da, ahal bada hormigoizko hormen bidez babestua, baina, aldi berean, eraikinetik azkar irteteko aukera ematen duena.

Ertzaintzarekin harremanetan jarrita eta haien jarraibideei jarraituz, **JPZ edo LB** berehala joango da larrialdiaren lekura.

### **JARDUKETAREN AMAIERA:**

**JPZ edo LB**ri dagokio larrialdiaren amaiera dekretatzea egoera kontrolpean dagoenean.

## JARDUKETA-JARRAIBIDEAK

### FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIA IZANEZ GERO

APA, JPZ edo LB

**FMK** (Fenomeno meteorologiko kaltegarri) esaten zaio pertsoneri eta ondasunei zuzenean edo zeharka kalteak eragin diezazkiekeen eta, beraz, inpaktuak eragin ditzakeen gertaera meteorologiko orori.

**FMK** baten arriskugarritasunak eragin litzakeen inpaktuen magnitude aurreikusgarria adierazten du, fenomenoak eragindako pertsonen eta ondasunen esposizioa eta kalteberatasuna kontuan hartu gabe. Arrisku-maila arriskugarritasuna baino handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, aire zabalean jarduerak egitearen, orografiaren, azpiegitura kalteberen edo kontserbazio-egoera txarraren arabera, etab.

Meteorologia-agentziek kontrolatzen dituzten **FMK** fenomenoak hauek dira: **huriak, elurteak, haizea, ekaitzak, tenperatura altuak, tenperatura minimoak, kostaldeko fenomenoak, hauts esekia, galernak, rissagak, lainoak, urteak eta elur-jausiak.**

ABISUA eremu jakin batean FMK bat gertatzeko probabilitateari buruzko iragarpena da, duen arrisku-mailari buruzko informazioa ematera bideratua.

**Euskalmet edo Meteo Navarra meteorologia-agentzien bidez edo AEMETen bidez** estatu osorako, lan-jarduera egitea aurreikusita dagoen lekuan meteorologia-agentziek komunikatutako abisuei buruz informatuta egon behar da zenbait egun lehenagotik.

<b>ABISU HORIA</b>	Arriskua txikia da herritarrentzat oro har, baina ondasunek eta biztanle kalteberak edo FMKren eraginpean dauden eremuetakoek inpaktu batzuk jasan ditzakete.
<b>ABISU LARANJA</b>	Arriskua handia da. Ondasunek eta biztanleria kalteberak edo esposiziopeko eremuetan daudenek inpaktu larriak jasan ditzakete. Sektore batzuetako kalteak garrantzitsuak izan daitezke, eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan dago.
<b>ABISU GORRIA</b>	Arriskua muturrekoa da. Ondasunek eta biztanleria kalteberak edo esposiziopeko eremuetan daudenek inpaktu oso larriak edo katastrofikoak jasan ditzakete. Biztanleriarentzat arrisku altuko egoera dakar

**ABISUAK** detektatuz gero, **zuzeneko arduradun hierarkikoari jakinarazi beharko zaio**, eta, halakorik ez badago, **Jarduketa Planaren Zuzendaritzari** edo **Larrialdietako Buruzagitzari**.

Pertsona bakoitzak, enpresaren antolamendu-egituran duen karguaren arabera, ondoren zehazten diren funtzioak hartu behar ditu bere gain, jarduketa-prozedura behar bezala aplikatzeko:

<b>ZUZENDARITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresan aplikatzen den protokoloaren ezarpena onestea eta sustatzea.</li> <li><b>Meteorologia-agentziekiko komunikazioak mantentzen direla ziurtatzea.</b></li> </ul>
<b>ERDI-MAILAKO AGINTEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eragindako beste edozein sail/arlorekin koordinatuta adosten diren <b>neurriak ezartzea.</b></li> <li>Bere departamentuan/arloan, bere egitura hierarkikoaren bidez jasotzen duen <b>informazio meteorologikoa barne-mailan zabaltzea.</b></li> <li>Fenomeno meteorologikoak eragindako instalazioak edo jarduerak <b>erabat/partzialki ixtea edo gelditzea agintzea.</b></li> <li>Alderdi interesdunetikiko <b>komunikazioak bermatzea</b>, komunikazio-prozesuan parte hartzen duten gainerako langileekin koordinatuta.</li> </ul>
<b>GAINERAKO LANGILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Detektatzen diren FMK fenomenoari buruzko informazioa ematea eta hartutako neurriak <b>behar bezala ezartzen eta betearazten laguntzeko prest jartzea.</b></li> </ul>

### **3. ERANSKINA: BITARTEKO MATERIALAK ETA BALIABIDEAK HORNITU ETA EGOKITZEKO PROGRAMA**

GABEZIEN ANALISIA		
EKINTZAREN JATORRIA	KOKAPENA/INSTALAZIOA	NEURRI ZUZENTZAILEAK
DOKUMENTAZIOA	OROKORRA	Osatu eta/edo berrikusi periodikoki Autobabes Plan honetako eranskinen eta jarraibideen erregistroak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolaketa funtzionala larrialdia gertatzen bada.</li> <li>• Alarmaren komunikazioa. Sartu Jarduketa Taldeko kideen telefonoak</li> <li>• Dauden bitarteko materialen inbentarioa eta babes-bitartekoen berrikuspena.</li> <li>• Botika-kutxaren berrikuspena.</li> <li>• Ebakuazio-bideen berrikuspena.</li> </ul>
LARRIALDIETAKO KANPOKO AGINTARIARI JAKINARAZTEA	OROKORRA	Establezimenduaren Autobabes Plana Eusko Jaurlaritzak horretarako ezarritako erregistroan erregistratzea. Autobabes Plana behar bezala eguneratuta mantenduko da eta jarduera edo azpiegiturak hasierako idazketarekiko edo ariketa edo simulakro bat egitearen ondorioz aldatzen direnean berrikusiko da hiru urte baino gutxiagoko aldizkakotasunarekin. Erregistroan aurkeztutako dokumentazioan aldaketak eragiten dituzten egiturazko edo antolamenduko aldaketen kasuan, dokumentazioa aldatu beharko da.
LARRIALDIETARAKO ANTOLAKETA LARRIALDIETAKO TALDEAREN IZENDAPENA EGUNERATUA IZATEA	OROKORRA	Jarduketa Taldean parte hartuko dutenak eta Hornidura Mozketaren arduraduna izen-abizenekin izendatzea. Aldizkakotasunez berrikustea pertsonen esleipena eta eguneratua eduki txosten honetako 2. Eranskina.
ENPRESAK IZAN BEHAR DUEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA	OROKORRA	Artxibatu beti eraikinean egindako azken berrikuntza-proiektuak, eta erantsi obra bakoitzean behin betiko egindako aldaketa guztiak egiaztatzen dituen dokumentua. Eraikinaren Planoak arestian aipaturiko obra eta aldaketen arabera eguneratu behar dira.
KANPOKO LAGUNTZARAKO INFORMAZIOA	ERAIKINAREN SARRERA NAGUSIA	Eraikinaren sarrera nagusiko atearen ondoan postontzi gorri bat jarri beharko da «Suteak itzaltzeko zerbitzuak SOILIK ERABILTZEKO» kartelarekin, eta postontzian gordeko dira kanpoko zerbitzuetarako erregistratzeko erabiltzen den Autobabes Planen Erregistroko Datuen orria eta planoak.
LARRIALDIEI BURUZKO PRESTAKUNTZA	LANGILE GUZTIAK	Larrialdietako Taldearen eta langileen aldizkako prestakuntzarako programa bat prestatzea Autobabes Planean ezarritakoaren arabera. Aldiro-aldira prestakuntza teoriko eta praktikoko programak egitea. Langile guztiei su-itzalgailuak erabili eta maneiatzeko prestakuntza praktikoak ematea. Ebakuazio bat egin behar izanez gero, langileak Larrialdi Neurriei buruz informatzea eta prestatzea. Urtean behin simulakroak egitea ezarritako Autobabes Planaren eraginkortasuna zehazteko.
EBAKUAZIOA	OROKORRA	Jarduketa Planaren Zuzendaritzak edo Larrialdietako Buruzagitzak eta Larrialdietako Taldeko kideek peto horia izatea gomendatzen da. Petoak bakoitzaren lanpostuan egongo dira.
ARAUZKO MANTENTZE-LANAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSPENAK	OROKORRA	Dokumentu honetako 5. kapituluan jasota dauden eta sutea eragin edo zabaldu dezaketen instalazio tekniko guztientzako eta suteen aurka babesteko instalazioentzako berrikuspen periodikoen eta arauzko ikuskapenen programa betetzea.

## 4. ERANSKINA: DIBULGAZIOZKO KARTELA

JARDUKETA-PLANAREN ZUZENDARITZA (JPZ):

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA – Dekanoa

LARRIALDIETAKO BURUZAGITZA (LB):

Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Dekanordea  
Administrazio-burua

Larrialdi bat aurkitzen baduzu eta inor ez badago zurekin... **JAKINARAZI LEHENBAILEHEN HAUEI:**

**JPZ / LB edo antolakundeko langileei**

*Larrialdietako Taldearen abisua jasotzen baduzu, saiatu zentroa lehenbailehen ebakutzen.*



Zentroa EBAKUATZEAN, GOGOAN IZAN:

- Egon **LASAI**, ez irten korrika, ezta oihuka ere. Modu ordenatuan eta hormari hurbil-hurbiletik jarraituz irten.
- **EZ** gelditu objektu pertsonalak jasotzen.
- **EZ** erabili igogailuak.
- Jarraitu larrialdiko seinaleei.
- Eman **LAGUNTZA** behar duenari.
  - Geratu lokaletik gertu (abisua eman ondoren):
  - Eragotzi beste pertsoneri lokalera sartzea. Ez utzi sartzen ibilgailuei edo oinezkoei. Beharrezkoa bada, eskatu laguntza.
  - Laguntzei itxaron informazioa emateko.
- **Itxi bidean aurkitzen dituzun atak.**



ELKARGUNEA

**ELKARGUNEA:**



Behin elkargunera joaten zarenean **EZ** itzuli ezergatik.

## 5. ERANSKINA: EZARPEN-ZIURTAGIRIA

**OHARRA:** jardueraren titularrak dokumentazio hau sartu beharko du Eusko Jaurlaritzak jarritako Autobabes Planen Erregistroan.



SEGURTSASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Larrialdiei Aurre Egiteko eta  
Meteorologiako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejero de Seguridad  
Dirección de Atención de Emergencias y  
Meteorología

## AUTOBABES PLANAREN EZARPEN-ZIURTAGIRIA CERTIFICADO DE IMPLANTACIÓN DEL PLAN DE AUTOPROTECCIÓN

AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUAREN III. ERANSKINARI DAGOKIONA  
CONFORME AL ANEXO III AL DECRETO 277/2010, DE 2 DE NOVIEMBRE

### ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK / DATOS DEL ESTABLECIMIENTO

<b>Izena / Nombre:</b>	
<b>Helbidea / Dirección:</b>	
<b>Jarduera edo erabilera</b> / Actividad o uso:	
<b>Telefonoa / Teléfono:</b>	
<b>Faxa / Fax:</b>	
<b>E-maila / E-maila:</b>	

### JARDUERAREN TITULARRAREN EDO BERE LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DEL TITULAR DE LA ACTIVIDAD O DE SU REPRESENTANTE LEGAL

<b>Izena / Nombre:</b>	
<b>NAN / DNI:</b>	
<b>Helbidea / Dirección:</b>	
<b>Telefonoa / Teléfono:</b>	
<b>Faxa / Fax:</b>	
<b>E-maila / E-mail:</b>	

### ZIURTATZEN DUT / CERTIFICO:

**Aipatutako establezimenduaren Autobabes Plana osorik ezarri dela, plan horretako zehaztapenen arabera eta zenbait jarduera, zentro edo establezimenduk larrialdietan eduki behar dituzten autobabes-betebeharrak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuari jarraiki.**

Que se ha realizado la implantación completa del plan de autoprotección del establecimiento reseñado, en los términos que se recoge en el citado plan y siguiendo los criterios establecidos en el Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.

**Lekua eta data / Lugar y fecha**

**Izpta. / Fdo.**

**Jardueraren titularra edo bere legezko ordezkaria**  
El titular de la actividad o su representante legal

### III. GEHIGARRIA: PLANOAK

